



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ALKIZA Udal-Info 4.0.

2014ko uztailaren 15

### ZORIONAK!!!

#### ZABORTEGIRA BIDLITAKOA: %75tik % 40ra urte erdian

(emaitza gaurkotuak: 2014ko ekainaren egoera)

Ondoren laburtzen den urtarrileko bileran esan genuen eran, azaro eta abenduan, kudeaketa sistema berri aurretik, bost asteetan pisaketak egin ziren Alkizari zegozkien datu zehatzak eta errealak izan ahal izateko (eta ez eskualdeko batez bestekoa). Ondorioa argia izan zen:

- **%25 besterik ez zela bereizita jasotzen** (astero 410 kg)
- **%75 zabortegira bidaltzen zela** (astero 1200 kg)

Hau da, taulan ikusi dezakezuen, aste bakoitzean batez beste 1.600 kg. hondakin jasotzen ziren. Horietatik, bereizi gabe zabortegira eraman beharrekoak 1.200 kg. ziren, birziklatzeko bereizten zirenak ordea 410 kg (beira kanpo). Beraz zer hobetu bageneukan. Dexente gainera!

Urte hasierako aldaketa horiek egin ondoren eta sei hilabete geroago, maiatza eta ekainean, hiru asteetan pisaketak egin dira berriro, ea hobekuntzarik eman ote den ikusteko. Eta bai:

- **%40 bereizita jasotzen da** (astero 453 kg)
- **%60 zabortegira bidaltzen da** (astero 669 kg)

Hobekuntza bat igartzen da: zabortegira bidaltzen dugun bereizigabeko zaborra gutxiago da eta birziklatzeko bereizten den materiala (plastikoa eta papera) gehiago.

Baina, konturatzen bazarete, astean bereizi gabeko 1200 kg. zabor jasotzetik 670 kg. jasotzera pasa gera. Beraz, ondorioztatu daiteke "falta" diren 531 kg. horiek lehen zaborrera botatzen zen eta orain konpost-era bideratzen den materia organikoa izan daitekela zati batean. Orduan:

- **%60 bereizten dela esan genezake, konpostatzen dena barne** (astero 984 kg)
- **%40 zabortegira bidaltzen da** (astero 669 kg)

urtea	kg	kg	kg	kg	%	%
	guztira	zabor	konpost (?)	plastik + paper	zabor	birzikl
2013	1.610	1200		410	% 75	% 25
2014a	1.122	669		453	% 60	% 40
2014b	1.653	669	531 (?)	453	<b>% 40</b>	<b>% 60</b>

Urte hasieran esan genuenaren arabera, autokonpostajea martxan jarri eta gero emaitza aztertu behar genuen. Urte erdi geroago, ondorioa argia da bide onetik goazela, horrela hobetzen dela. Oraindik zer egin eta zer hobeturik badago, jakina, %20 - %80 geure buruari ezarritako proportzio helburura gehiago gerturatzeko: **gehiago bereizi** eta **organikorik batere ez bota**. Adibidez, poltsa handi asko ikusten da oraindik edukiontzietan denetik nahastuta dutenak!!!

## **HONDAKINEN KUDEAKETA SISTEMA BERRITUA: HURRENGO FASEA ABIAN** (2014ko urtarrilaren 17an Herri Bileran azaldutakoaren laburpena)

Urte hasierako ostiral batean (urtarrilaren 17an) Herri Bilera ospatu genuen “**Hondakinen kudeaketa sistema berritua: hurrengo fasea abian**” gaiarekin eta berrogei-bat lagun elkartu ginen. Bertan, Udalak garai horretan bukatu zen sistema berriaren ezarpenari eta hurrengo faseari buruz azalpenak eta datuak eman zituen, konpostatzen hasitako batzuen esperientziak konpartitu ziren eta lur azpiko kontenedoreak kentzeko arrazoiak eztabaidatu genituen.

### **EZARPENA**

Iazko azken bi hilabeteetan eta aurtengo urtarrilean zehar etxez etxeko konpostagailuen ezarpena burutu zen eta baita gune komunitarioena ere, beste lan batzuekin batera.

### **Konpostagailuak**

- Erroldan jasota agertzen diren 133 etxeetatik, honako ezarpenak egin dira: banakakoak 70; bizilagunen artekoa 16 (Peru 1, Etxaburua eta Plazakoak barne); auzokonpostajea 16 (Peru 2,3,4,5); aberekin-edo kudeatzen duten 11.
- Beraz, guztira **113 etxe edo familia**, hau da guztien % **85**, eta beste %15 hori hutsik daudenak, bestela egiten dutenak eta abar osatzen dute.

### **Bestelako lanak**

- Horrekin batera, jantokientzat materia organikoa kopuru handiagoan azkarrago konpostatu dezaken egurrezko etxola ezarri zen.
- Baita ekarpen gune bat ere eraiki zen frontoiaren atzealdean: dagoeneko egituratzailea edozeinen eskura jartzeko erabiltzen dena edo garbigunera eramane behar diren gauza txikiak jasotzeko, eta aurrerago etorri daitezken beste erabilpenetarako gertu dagoena.
- Kaleko zakarrontziak berritu eta osatu ziren lauko multzoetan elkartuz bakoitzak dagokiona jaso ahal izateko (organikoa, papera, ontzi arinak eta errefusa).
- Azkenik, hondakinak sailkatzea errazte aldera liburuxkak buzoietan banatu dira, edukiontzietan edo ondoan panelak eta pegatina informatiboak jarri dira, herriko webgunean estekak erantsi dira eta udal ingurumen teknikariari edo Mankomunitateari zalantzak bideratzeko telefono zenbakiak eta helbide elektronikoak zabaldu dira.

### **Kostea**

Ezarpen gastuaren zati bat Udalari zegokion, bestea Tolosaldeko Mankomunitateari.

- Udala: gastua 20.000 €, dirulaguntza 18.000 €
  - Auzoguneko egurrezko hesiak, egurrezko etxola, ekarpen gunea, panelak, zakarrontziak eta abar; honen kostea ggb 20.000 €koa izan zen (20.345 €).
  - Gastu honi aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiko 2013ko diru laguntza deialdietan parte hartu genuen eta bi diru laguntza mota eskuratu genituen (prebentzioa eta murrizketa), guztira ggb 18.000 € lortu genuelarik (18.322 €);
  - Udal ingurumen teknikariaren soldataren zati bat ere hortik justifikatu genuen.
- Mankomunitatea:
  - banakako eta auzo konpostagailuak eta teknikarien lana (Spora-koak)

### **MANKOMUNITATEARI EKARPENA ETA UDAL ZERGAK**

Oraindik Mankomunitatea kontuak zehazten ari da. Udalaren aldetik dagokigun ekarpena ahal den justoen izan dadin burukatzen ari gara. Gutxienez, ziurtatuta ematen du aurtengo %23ko igoera saihestuko dela eta jasotako zerbitzu zehatzaren arabera ordaindu beharko dela. Finkatutakoan informazioa osoa zabalduko dugu eta, aukerarik balego, aurtengo 2. zergan islatu.